



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai Garcia Ingurumen Teknikaria (Grunver Sostenibilidad)

Plastikoen ekoizpen eta erabilera hazkorrak planetako txoko guztiak mehatxatzen ditu,

bereziki urtero 12 milioi zabor-tonen helmuga diren itsaso eta ozeanoak. Plastikoren degradazio-prozesu motelak eta sakabanatze errazak itsas espezieetan hondamena eragiten du. Hala ere, 2020an material horren 500 milioi tona ekoitziko dira, duela 40 urte baino %900 gehiago.

Jadanik argi dugu plastikoren erabilera eutsezina dela. Oihalezko poltsak eramaten ditugu erosketak egitera, txosnetara gure edalontzi berrerabilgarria zintzilik dugula joaten gara eta ontziratutako gabeko produktuak erosten saiatzen gara noizean behin. Datorren urtetik aurrera plastikozko erabilera bakarreko gai batzuk debekatu egingo dira, eta beste material batzuetako lasto, ontzi eta mahai-tresnak eskuratu beharko ditugu. Pixkanaka gero eta plastiko gutxiago kontsumitzen badugu, agian sektorea ekoizpena murriztera bultzatu dezakegu.

Euren produktuak saltzeko plastikoa erabiltzen duten enpresak konturatu dira material horren irudia ingurumenaren suntsiketarekin lotzen dugula, eta, ondorioz, beste ontziratze aukera batzuk bilatzen dihardute buru-belarri. Batzuek euren produktuen plastiko birziklatu ehunekoa igotzeko esfortzuak egin dituzte. Beste

Plastikoa, tetrabrik edo lata: zein da ura kontsumitzeko erarik jasangarriena?

Plastikoz betetako ozeanoen irudiek kontzientzia handia piztu dute. Kontsumitzaileek gero eta gehiago baztertzen dituzte plastikoa duten produktuak, eta, ondorioz, material alternatiboak erabiltzen dituzten hainbat marka azaldu dira merkatuan azken urteotan. Lehen plastikozko botilan erosten zen ura orain jasangarriagoak diruditen tetrabrik ontzietan eta aluminiozko latetan ere eskuratu daiteke. Benetan dira ingurunerako hobeak? Edo plastikoa kentzeak jasangarritasun sententzia ematea bakarrik bilatzen du?

batzuek zuzenean baztertu dute aurreko aukera eta fama hobea duten materialak erabiltzera igaro dira jardunbide jasangarriagoak exijitzen dituzten kontsumitzaileen eskaria asetzeko.

Azken estrategia aplikatu duen produktu esanguratsuenetako bat ur botilatua da. «Kaxa batean erositako ura hobea da ingurunerako», dio ura tetrabrik ontzietan saltzen duen marka batek bere iragarkian. «Erosi ura merkatuko ontzirik jasangarrienean», adierazten du horretarako aluminiozko lata erabiltzen duen beste batek.

Ura tetrabrik ontzietan eta aluminiozko latetan saltzen



Plastikoak sortzen duen kutsaduraren inguruko kontzientzia asko zabaldu da azken urteotan.

GAUR8

dituzten enpresak areago-
tzen ari dira, eta produktu
horiek ospea azkar irabazi
dute kontsumitzaile kon-
tzentziatuen artean. Hain-
bat dira, gainera, jada ura
plastikorik gabeko ontzi ho-
rietan eskaintzen duten jate-
txe eta bestelako zerbitzuak.

Ez dago zalantzarik marke-
tin estrategiak funtzionatu
duela. Ontzi horiek plasti-
kozkoak baino jasangarria-
goak direla uste dugu denok.
Goazen egia den ikustera.

URA PET PLASTIKOZKO BOTILAN

Litro bateko PET botila batek
30 gramo inguru pisatzen di-
tu. Bost urte barru mota ho-
netako ontzien lehengai bir-
ziklatu kopuruak %25ekoa
izan beharko du. Beraz, az-
tertutako botilak baldintza
hori betetzen duela suposa-
tuko dugu. Tapoia (bi gramo)
dentsitate handiko polietile-
nozkoa da (HDPE).

Bi plastiko mota horiek
%100ean birziklagarriak di-
ra. Espainian merkaturatuko
ontzien %30 inguru bakarrik
birziklatu ahal izaten dira,
hondakinak nahastuta hel-
tzen direlako tratamendu
instalazioetara. Hala ere, bo-
tila guk ondo bereizi eta fa-
brikan era egokian kudea-
tzen dela suposatuko dugu.

URA ALUMINIOZKO LATAN

33 cl-ko lata batek 15 gramo
aluminio inguru ditu, eta li-
tro bat ur aztertzeke hiru la-
ta behar direla hartuko dugu
kontuan. Aurreko kasuan
gertatzen den bezala, alumi-
nioa %100ean birziklagarria
denez, bidean gertatu daitez-

keen eragozpenak baztertu
eta osorik birziklatzen dela
suposatuko dugu.

URA TETRABRIK ONTZIAN

Tetrabrik ontziak kartoia di-
rudi, baina horren %25 alu-
minio eta plastikoz osatuta-
ko nahaste bat da, edariak
kanpoko kartoia ez apurtze-
ko eta eguzki-argiak barruko
produktua ez hondatzeko
erabiltzen dena. Kanpoko ka-
pa birziklagarria da, baina ez
da existitzen barruko nahas-
tea banandu eta birziklatze-
ko gai den teknologiarik. Be-
raz, litro bat ur biltzeko 26
gramo pisatzen dituen tetra-
brik baten 19,5 gramo birzi-
klatzen dira, eta gainontze-
koa erraustu egiten da.

EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Egindako kalkuluen arabera,
hiru aukeren artean karbono
aztarnarik baxuena PET plas-
tikozko botilak duela lortzen
dugu (0,176 g CO₂ bal.). Birzi-
klatu ezin daitekeen tetra-
brik kaxaren atalak aurreko-
ak baino aztarna handiagoa
izatea eragiten dio (0,237 g
CO₂ bal.), eta, lataren kasuan,
aluminioaren ekoizpen pro-
zesuaren kaltea da aukera

**Ez dago zalantzarik marketin estrategiak
funtzionatu duela. Tetabrik ontziak edo
aluminiozko lata plastikozko ontziak baino
jasangarriagoak direla uste dugu denok**

**Plastikoaren erabilera saihestu behar den
arren, konponbidea ezin da erabilera bakarreko
material alternatiboak erabiltzea izan.
Txorrotako ura eskatzea da jasangarriena**



Txorrotako ura guztien artean jasangarriena. GAUR8

hau azken postura bidaltzen
duen faktorea (0,477 g CO₂
bal.).

Ur aztarna kontuan har-
tzen badugu, aldiz, tetrabrik
kaxa da bizi ziklo osoan ur
gutxien kontsumitzen duena
(0,72 L ur bal.), hurbiletik
PET plastikozko botilak ja-
rraituta (0,98 L ur bal.). Alu-
miniozko lata, berriz, hiruga-
rren postuan geratzen da
(2,83 L ur bal.).

Azterketa sakon bat buru-
tzeko ontzien bizi ziklo oso-
en datu zehatzak beharko ge-
nituzke, baina lehen ikerketa
batek adierazten digu beste
material etako aleak ez direla
zertan ingurunerako hobeak
izan. Plastikoa ez erabiltzeak
ez du esan nahi beste ingu-
rumen arlo batzuetan kalte-

rik eragiten ez denik (aldake-
ta klimatikoa edo baliabide
naturalen kontsumoa). Be-
raz, plastikoaren erabilera
saihestu behar den arren,
konponbidea ezin da erabile-
ra bakarreko material alter-
natiboak erabiltzea izan. On-
tziratze beharrik ez duen
txorrotako ura eskatzea da
ura kontsumitzeko erarik ja-
sangarriena.

Datuak
Karbono aztarna kalkulatzeko
metodoa: IPCC 2013 GWP
100a.
Ur aztarna kalkulatzeko
metodoa: Hoekstra, et. al.
2012 (WS).
Ontzien datuak: neurketa
zuzena.